



## 2017a Zenbakitan

2017an Dbusen 132 autobus ditu bere flotan, tartean hiru autobus elektriko eta hogeit hamar autobus hibrido, eta 506 pertsonako plantilla bat dauka.

Hiriko autobus zerbitzua 39 lineen bitartez ematen da; linea horiek hiriaren periferian dauden auzoak elkarrekin zein hirigunearekin lotzen dituzte.

Taula honetan Dbusen buruzko 2017ko daturik nabarmenenak ikus daitezke:

ONDORENGO TAULAN DBUSEN 2017KO DATURIK NABARMENENAK IKUS DAITEZKE

<b>28.402.059</b>	<b>30</b>	<b>9</b>	<b>132</b>
Bidaia-kopurua	Eguneko lineak	Gautxorien lineak	Autobus-kopurua
<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>7,9</b>	<b>506</b>
% Behe-plataforma duten autobusak	Aire girotua duten autobusak	Flotaren batez besteko adina	Batez besteko langile-kopurua

2017an, **28 milioi bidaia baino gehiago egin dira**, laugarren urtez jarraian, bidai kopuru hori finkatuta. Guztirako bidai kopurua txikitu egin da pixka bat, batez ere 2016an (bisurtea) baino lanegun gutxiago egon delako 2017an eta jaiegunak bat gehiago izan direlako larunbat kopuruaren kaltetan, eta Astiñeneko zubiaren itxieraren ondorioz bidaiak galdu direlako. 28 Amara-Ospitaleak, 13 Altza eta 5 Benta-Berri lineak izan dira bidaiari kopuru handien eduki dutenak.

Dena dela, garrantzitsua da azpimarratzea 2017an autobusean egindako bidaiak gora egin dutela berriro lanegunetan: 90.255 bidaia egunean, eta aurreko urtean 89.864 bidaia egunean izan ziren; beraz, zifra errekorra 2013ko martxoan tarifak bateratuak abian jarri zirenetik.

Kontuan hartuta Dbusek eta beste garraio operadore batzuek autobusean edo trenean egindako hiri barruko bidaiak, 2017an ia 32 milioi bidaia egin dira Garraio Publikoan, Donostian. Testuinguru horretan, **Dbus da Donostiarren erreferentziako garraiobidea.** Donostiako biztanle bakoitzak batez beste **172 bidaia egin ditu urtean** hiri garraioan, eta zifra hori Europan dagoen handienetako bat da, bai eta Espainian biztanle kopuru antzekoa duten gainontzeko hirietakoa baino askoz handiagoa ere .

## 1 PUNTUALTASUN INDIZEA

Dbusek duen **puntualtasun indizea % 97koa da**, ordutegiaren planifikazio eraginkorrari eta azken hamarkadan ezarritako sistema teknologikoei esker.

2017 an batez besteko puntualtasun handieneko lineak hauek izan dira: 36 eta 37 mikrobus-lineak, eta 25 Benta Berri-Añorga, 28 Amara-Ospitaleak, 5 Benta Berri, 8 Gros-Intxaurren eta 23 Errondo-Puio lineak.

## 2 PRODUKTIBITATEA

2017. urtean, Dbusek 467.572 zerbitzu-ordu eskaini ditu eta 6.770.916 kilometro egin ditu eguneko eta gaueko 39 lineatan, hiriko auzoak lotuz.

2017an batez besteko abiadura komertziala 17 km/h izan da.

## 3 DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

Enpresako gestio efizienteari esker **murriztu ahal izan da aurreikusita zegoen udal-ekarpena.** Hain zuzen ere, 2017an Udalaren ekarpena bidaiari bakoitzeko 0,53 eurokoa izan da, Espainiako eta Europako beste hiri gehienetako garraio kolektiboetan baino txikiagoa.

DIRU SARRERAK	2017
Diru-sarrerak emandako zerbitzuengatik	19.638.610 €
I+G proiektuak	503.836 €
Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	1.464.454 €
Finantza diru-sarrerak	1.348 €
Udalaren ekarpena	14.986.573 €
<b>DIRU SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>35.594.824 €</b>

GASTUAK	2017
Hornidurak	3.637.170 €
Langile-gastuak	26.782.976 €
Beste ustiapen-gastu batzuk	3.847.675 €
Ibilgetuaren amortizazioa	2.316.681 €
Finantza-gastuak	136 €
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>36.594.824 €</b>

Alemaniako Karlsruhe Unibertsitateko metodologiaren arabera, Donostiako garraio publikoaren erabilera mailak hiriarri 10.361.800 euro aurrezten dizkio, auto pribatuaren erabilerarekin alderatuz gero.

## 4 DBUS-EN BALIO DUTEN GARRAIO TITULUAK

Dbusek hainbat bidai titulu baliodunak ditu, paperezko noizbehinkako bidai txartelaz eta EMV banku txartelen bitartezko ordainketaz gain. Mugi txartela guztiak, hau da, txartel anonimoak zein pertsonalizatu arruntak eta talde berezienak, eta Lurraldebus txartela dira Dbusen bidaiatzeko balio duten bidai tituluak. Gipuzkoako Interoperabilitatearen proiektuari esker, 2017an **Bat txartela (Araba) eta Barik txartela (Bizkaia) sartu dira** Dbuseko autobus lineetan bidai ordaintzeko modu gisa, eta aldi berean EAEko hiriburuetan bidaiatzeko oztopoak murriztuta.

Mugi txartel anonimoa kenduta, Lurraldebuseko eta Mugiko txartel guztiak **pertsonalak eta eskualdaezinak** dira, eta **deskontu progresiboak** daukate erabilitako aldien arabera. Kolektibo bereziko pertsonak, gainera, hobariak edukiko dituzte txartela kargatzean. Gipuzkoako garraio publikoko operadore guztietan ere balio dute. **Bat eta Barik** txartelak Gipuzkoako Dbusen baino ezin dira erabili, eta Mugi txartelarekin egindako lehen bidai tarteetatik lortzen den **deskontu** berbera dute.

Gainera, turistek eta bisitariak Donostian barrena bidaiak modu erosoagoan egiteko txartel bereziak dituzte: Basque Card —probintzia osorako balio du— eta San Sebastián Card —Dbusen ibiltzeko bakarrik balio du—.

Mugi Txartel Arrunta



Lurraldebus Txartela



Mugi Txartel Anonimoa



Kolektiboentzako Mugi Txartela



Turista txartelak




## 5 BIDAIA-KOPURUA ETA DESKONTUAK TITULU MOTA BAKOITZEKO

2017an zehar, bidaiarien % **91,01k** noizbehinkako txartelaren tarifa **deskontua** egiten dien txartelen bat erabili zuen, eta beste bidaiari guztiek eskudiruz ordaindu zuten:

### 2017an deskontu-txartelekin egindako bidaiak

2017ean,  
bidaiarien %  
91,01k deskontua  
izan zuen  
egindako bidaia  
bakoitzeko



Txartel arruntarekiko deskontu horien onurez gehien baliatu diren taldeak honakoak dira:



Gazteak



Soziala, Desgaituak eta  
65 urtetik gorakoak



Familia ugariak

Kolektibo horiei BAT eta BARIK txartelekin ordaindutako bidaiak gehitu behar zaizkie, noizbehinkako bidai txartelaren tarifarekin alderatuta %45eko deskontua edukiko dute eta.



MERCADO  
1855

5 SEMA BARRA

www.dbus.es

www.dbus.es

ONCE

470

MAN d-bus

1612 CKD SP

481

MAN

d-bus

2342 FXW SP